

DERRIGORREZKOA

Eusko Jaurlaritzaren beka 1. aldiz eskatuz gero edo beka aurkeztu zen unean aldaketarik izan bada

- **ERROLDA-ZIURTAGIRIA**, familia- edo bizikidetzaren unitatearen etxean errolatuta dauden pertsona guztiak jasoko dituen.

AUKERAKOA

- **AITONA-AMONAK**: Bizikidetzaren ziurtagiria, udalak emandakoa.
- **NEBA-ARREBA UNIBERTSITARIOA**: Matrikulatuta dagoela egiaztatu behar da, eta, hala badagokio, errentamendu-kontratua aurkeztu.
- **GURASO BAKARREKO FAMILIA BATEKO KIDE BADA**: guraso bakarreko familiatzat hartzen da guraso, tutore edo harreragile bakarra duena, eta familia-liburuaren edo tutoretza edo harrera ezartzen duen dokumentu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- **(*) HARRERA-FAMILIETAN DAUDEN ADINGABEAK**: Harrerari buruzko foru-aginduen fotokopia eta dagokion aldundiak erabakitako harrerako baldintzen fotokopia.
- Eskatzailea **ERABATEKO UMEZURTZA** eta 25 urtetik beherakoa denean: Egoera egiaztatzea
- **(*) DIBORTZIOA, BANANTZEA, ERREGISTRATUTAKO IZATEZKO BIKOTEA DESEGITEA EDO ANTZEKO EGOEREN KASUAN**: Dibortzio- edo banantze-epaia, hitzarmen arautzaileak, udalak eginiko bizikidetzaren ziurtagiria, pentsioen egiaztapen eguneratuak eta, hala badagokio, aitaren edo amaren ezkontidearen edo bikotekidearen diru-sarrerak.
- **(*) DESGAITASUNA DUTEN ANAI-ARREBAK EDO SEME-ALABAK**: Desgaitasun-maila aitortzen duen egiaztapena
- **FAMILIA UGARIA**: Ez da beharrezkoa dokumentazioa aurkeztea, baldin eta administrazioak egiaztapena egiteko baimena eman badu.
- Bizikidetzaren unitateko kide guztiek 2022an **IZANDAKO ONDAREA ETA DIRU-SARRERA ETA LAGUNTZA GUZTIAK EGIAZTATU BEHAR DIRA**, baldin eta datu horiek PFEZaren aitorpenaren jasota ez badaude.
- **PFEZAREN AITORPENAREN ONDORIOETARAKO KONPUTAGARRIAK EZ DIREN DIRU-SARRERAK IZANEZ GERO**, ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko pentsioen ziurtagiria, zurtasun-pentsioarena, kaleratzearen kalte-ordainena eta abar.
- **GIZARTE-LAGUNTZEN HARTZAILE IZANEZ GERO**, udaleko gizarte-zerbitzuek edo beste entitate edo elkarte ongile batzuek egindako ziurtagiria
- **IKASKETAK DIRELA-ETA FAMILIAREN EGOITZATIK KANPO BIZIZ GERO**: Errentamendu-kontratua edo bizitegi-gastuaren ordainagiria.
- **FAMILIA- ETA EKONOMIA-INDEPENDENTZIA EGOERAK**: Gurasoen etxetik irten dela eta ekonomikoki independentea dela egiaztatzeko, eskatzaileak egiaztatu beharko du bere bizileku propioan –ez gurasoen etxean– errolatuta dagoela –erositako zein alokatutako etxebizitza batean, bakarrik zein partekatuta–; edota zurtasun-egiaztapena, bizitzeko zer baliabide dituen eta egoitzaren egoera (jabetzan edo alokairuan) egiaztatu beharko du.
- **ZERGA-EGOITZA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOTIK KANPO EGOTEKOTAN**, gainera, 2022ko dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:
 - ⇒ Zerga-aitorpena egin duten kide konputagarrien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpen-likidazioaren kopia osoa.
 - ⇒ Errenten eta bestelako diru-sarreraren ziurtagiriak, hala nola Gizarte Segurantzaren pentsioen eta Lanbidek kudeatutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo/eta etxebizitzarako dirulaguntza osagarriaren ziurtagiriak.
 - ⇒ Lan-etekinen ziurtagiria (10T), PFEZaren aitorpena egin ez bada.
 - ⇒ Familia ugaria: txartela
 - ⇒ Bizikidetzaren unitateko kideen jabetza guztien OHZ Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kopia
- **2022-2023an EAEtik kanpoko irakaskuntza hauek egin badira**, 2022-2023 ikasturtean lortutako batez besteko notaren ziurtagiria. 2022-2023 ikasturtean ez badu ikasketarik egin, egiaztapena egindako azken ikasturtearena izango da.
 - ⇒ Batxilergoa.
 - ⇒ Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketa.
 - ⇒ Ikasketa artistiko profesionalak.
 - ⇒ Kirol-ikasketak.
 - ⇒ Hezkuntza-administrazioaren titulartasuneko eskola ofizialetan egiten diren hizkuntza-irakaskuntzak.
- **HEZKUNTZA-LAGUNTZA BEREZIA BEHAR DUTEN IKASLEAK**:
 - ⇒ Pedagogia-berreziketarako, hizkuntza-berreziketarako eta gaitasun intelektual handiarekin lotutako ikasketetarako laguntza-eskabideekin batera, ikastetxeak edo zerbitzua ematen duen berrekitzaileak egindako memoria bat aurkeztu beharko da; bertan, haren ezaugarrien informazio xehatua jasoko da, asteko eta ikasturteko ordu-kopurua, ematen duen espezialista eta hileko eta ikasturteko kostua barne. Eman beharrezko laguntzaren zenbatekoa zehazteko, gehienez ere ikasturteko 10 hilabeteetan sortutako kostua hartuko da kontuan.
 - ⇒ Laguntzaren edo sorospenaren xede diren eskola-garraioak eta bestelako zerbitzuek 2023-2024 ikasturtean sortutako gastuaren egiaztapenak, betiere Administrazioak zerbitzu horiek doan ematen ez baditu.
- **BESTELAKOAK**: Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak justifikatzeko egoki irizitako beste edozein dokumentu, hala nola kaleratze-likidazioak, enplegu-erregulazioko espedienteak, behar bezala erregistratutako dohaintzak eta laguntzak, etab.

(*) Aurreko ikasturteko deialdian aurkeztu bazen, ez da berriro aurkeztu behar.